

Eskolaren moldea

Euskaldunon Egunkaria, 1994-01-18: 2.

Frantsesak auzi zahar bat berritzen ari dira: eskolaren pribatu eta publikoaren arteko diferentziak. Eta berehala irten da aukera honen egiazko zergatia: Eskolak, Errepublikako gizakiaren molde izan behar du. Zein molde? Ba molde frantsesa! Aipatzen dituzte eskola librea, denentzako berdintasuna; eta oinarriak onak dira, baina ez dira gizakiaren eskubide nagusien moldetara egokitzen. Eskolak libre eta laikoa, eta ez antiklerikala, eskaini behar duela, konforme, zeren eta molde honen aurretik Elizaren molde bakarra jauntxoan pribilegiotara egokituta zegoen, eta gu zanpaketa eta ezberdintasun honen aurka gaude. Errepublikarrak gara funtsean gu ere. Baina euskaldunak agerian ikusten du "liberté, égalité et fraternité" frantsesak ez diola funtsezko herritasunaren, naziotasunaren eta askatasunaren aukera bermatzen, bere oinarritzko kultura eta hizkuntzaren eskubidearen aurka doala dena. Garbi aitortu dute batzuk, gaur Frantzia XVIII. mendeko iraultzaren atzetik bertoko kultura eta hizkuntza ezberdinak desegin eta indarkeriako molde berrira egokitzen joan direla. Espainolak gauza bera XIX.etik aurrera egin duen bezala. Hau da formula honek, beste gauzen artean, eman digun eskubidea gu geu ez izateko aukera. Eta gaur "Europar" berek bakarrik eta beste handi batzuk jarraitu behar dute armak egiten eta saltzen, su-ziri atomikoak egiten, eta irrati eta telebisio eta zinema bidez frantses eta espainol hizkuntzaren esparru zabala gordez, eta geu, "liberté" asko eta askatasun gutxi, libertatez inguratuko gaituzte hobeto irensteko.